



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren informazio- buletina



Posta elektronikoa: cyfcps-san@ej-gv.es – Web-orria: http://www.osakidetz.euskadi.net/r85-pkinve02/es/contenidos/informacion/formacion/continua/es_1265/for04_c.html

2013ko otsaila 3. alea

Ale honetan:

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikagarriak diren Osasun Sistema Nazionalaren Etengabeko Prestakuntza Batzordearen akordioak:

- Egoiliarren parte-hartzea
- Hornikuntza-erakundeak
- Espezialitate-arlo kreditagarriak
- Kredituak barematzea
- Kreditatzeko eta Kreditatze Aurreratuko Diplomak
- Saio klinikoak
- Bilera zientifikoak
- Jarduera mistoak

Egoiliarren partaidetza kreditaturiko jardueretan

Kontseiluaren oharra

Iaz hasitako bideari jarraiki, gaur plazaratu da Kontseiluaren informazio-buletinaren hirugarren alea, 2013ko lehena. Honen bidez, Osasun Sistema Nazionalaren Etengabeko Prestakuntza Batzordeari buruzko berriak helarazi nahi dizkiogu lanbide sanitarioen prestakuntza ematen duten erakundeei eta langile sanitarioei.

Etengabeko Prestakuntzako Batzorde Nazionalaren ardura da, batetik, profesional sanitarioei zuzendutako etengabeko prestakuntza-jarduerak antolatzeko irizpide komunak ezartzea eta, bestetik, jarduera horiek kreditatzeko zein **baldintza, prozedura eta irizpide** aintzat hartuko diren xedatzea.

Irizpide horiekin egindako kreditatzeak Estatu osoan du eragina,

agiria zein administraziok eman duen axola gabe.

Hori dela eta, nahitaez aplikatu behar ditugu irizpide horiek, horrek Kontseilu honen beraren irizpideak aldatzea esan nahi badu ere.

Sebas Martin

Euskal Kontseiluko Ebaluazio Batzordeko presidentea

Marijo Bombín

Euskal Kontseiluko idazkaria

Etengabeko Prestakuntza Batzordearen akordioak (indarrean 2013ko urtarrilaren 1etik)

Egoiliarren partaidetza kreditaturiko jardueretan

Ezingo dira kreditatze-eskaerak onartu osasun-zientzietako espezialista-ikasketak egiten ari diren profesionalei berariaz zuzendutako jarduerentzat.

Egoiliarrek etengabeko prestakuntza-jardueretan parte hartu ahalko dute baldin eta bere tutoreak edo irakaskuntza-batzordeak ongi irizten badio.

Kasu horretan, espezialista-ikasketak egiten ari diren profesionalen ehunekoak guztizko partaide-kopuruaren %50etik beherakoa izan beharko du.

Egoiliarrek ez dute kredituak eskuratzeko eskubiderik izango.

Etengabeko Prestakuntza Batzordearen akordioak (indarrean 2013ko urtarrilaren 1etik)

Erakunde hornitzaileak



Erakunde hornitzaileak

Profesional sanitarioei zuzendutako etengabeko prestakuntza-jarduerak kreditatzeko eskariak aurkez ditzakete, batetik, **ikastetxe eta erakunde publiko** zein pribatuek, baldin eta horien estatutuetan hezkuntza erakundearen xedeen artean agertzen bada; eta, bestetik, **langile autonomoek**, baldin eta beren jarduera nagusia prestakuntza bada, eta Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak onartutako prozedurari men egiten badiote. Ez da pertsona fisikoen eskaririk onartuko, langile autonomoenak salbu, esan bezala.

Ez dira onartuko produktu sanitarioak edo antzekoak merkaturatzen dituzten erakundeen eskariak.

Gizarte-egoitza Estatu-kanpo duten erakunde hornitzaileen eskariak onartuko dira, baldin eta soilik profesional sanitarioei zuzendutako prestakuntza-jarduerak antolatzen badituzte eta ikasleen artean espainiar profesionalek parte hartzen badute.

Prestakuntza-jarduera (edo horren lehenengo edizioa, bat baino gehiago egiten badira) egingo den autonomia-erkidegoak hartuko du bere gain eskaeren kudeaketa.

Jarduerak Espainiatik kanpo egiten direnean edo presentziazkoak ez direnean, erakunde hornitzaileak Espainiako erakunde baten bermea eduki beharko du, aurkezle- eta bermatzaile-lanak egin ditzan. Erakunde kreditatzailea Espainiako aurkezleak egoitza dueneko hura izango da.

Gobernu-erakundeek, nazioarteko elkarteek edo dagokionean halaxe hitzartutako beste batzuek ez dute bermerik beharko. Horrelakoetan, erakunde hornitzaile atzerritarrek modu askean aukeratu ahalko du bere eskaera bideratuko duen erakunde kreditatzailea.

Espezialitate-arlo kreditagarriak



Espezialitate-arlo kreditagarriak

Jarduera kreditagarriek **espezialitate-arlo** hauetakoren bati lotutakoak izan beharko dute:

- praktika klinikoa
- osasun publikoa (osasun- eta gaixotasun-adierazleak eta osasunaren sustapena)
- kudeaketa sanitarioa eta kalitatea
- ikerketa sanitarioa
- irakaskuntza
- balio profesionalak, jarrera eta jokabide etikoak
- komunikazioa
- informazioaren maneia (informazio-sistemak)
- talde-lana.

Prestakuntza-jarduera bat Etengabeko Prestakuntzako Kreditatze Sistemari onartzeari buruzko zalantzak irizpide hauen arabera aztertuta ebaztzeko dira:

- Prestakuntza-jarduera Osasun Sistemari eta lanbide sanitarioari **nola egokitzen zaion**. Zeharkako materia ote den, profesional sanitarioei zuzendua, eta Osasun Sistemako praktika profesionalari lotzen zaion xedea duena.
- Materia gradu- edo espezialitate-prestakuntzan **aitortutako gaitasunei** buruzkoa den.
- Jardueraren materia eta helburuak **praktika profesionalean aplikatu daitezkeen:** klinikan, komunitatean, antolamendu sanitarioan edo ezagueraren kudeaketan.

Terapia naturalei dagokienez, materia kreditagarritzat jotzeko nahikoa oinarri ez badago ere, oro har,


beheko lanbide hauen gradu-ikasketetan sartzen diren teknika edota tratamenduak kreditatu ahalko dira:

- Farmazialariak eta farmazia eta parafarmaziako laguntzaileak: fitoterapia edo sendabelarrak.
- Fisioterapeutak: metodo eta teknika berezi hauek, zehazki: lokomozio-aparatuarekin lotutakoak (eskuzko terapiak, manipulaziozko terapia artikularrak, osteopatia eta kiropraxia), prozesu neurologikoei lotutakoak (teknika terapeutiko erreflexuak), bihotz- eta zirkulazio-sistemari lotutakoak, eta estatika eta dinamikaren aldakuntzei lotutakoak.

Ortopediak fisioterapiaren bitartez eraginak aintzat hartzen dituzten metodo eta teknika espezifikokoak

Etengabeko Prestakuntza Batzordearen akordioak (indarrean 2013ko urtarrilaren 1etik)

Kredituak barematzea



Etengabeko prestakuntzaren kredituak barematzea hautaketa-prozesuetan

▪ Prestakuntza-ataleko guztizkoaren arabera

Etengabeko prestakuntzaren pisua **%50** edo gehiagokoa izan beharko da, prestakuntza-atal jakin bati esleitutako guztizkoari dagokionez.

Balioespen-unitatea kreditua izango da, eta balio zehatza ateratzeko etengabeko prestakuntzari esleitutako puntuak kreditu zenbagarrien gehienezko kopuruaz zatituko dira.

▪ Denbora-tarte jakin bateko ikastordu-kopuruaren arabera.

Prestakuntza-jarduera guztiek **urtean 200 ordu eta 62 kreditukoak izango dira, gehienez.**

▪ Prestakuntza-jardueraren antzintasunaren edo **iraungitzearen** arabera.

- Azken 5 urteak: lortutako kredituen balioaren %100, onartutako gehienezkoa lortu arte.
- 5 urte baino gehiago eta 10 urte edo gutxiago: lortutako kredituen balioaren %50.
- 10 urte baino gehiagoko antzintasuneko kredituak eta etengabeko prestakuntzak ez dute punturik jasoko.

▪ Prestakuntza-jarduera lor daitekeen lanposturako **egokia** den edo ez aintzat hartuta.

- Zuzenean lotuta badago: lortutako kredituen balioaren %100, onartutako gehienezkoa lortu arte.
- Hein batean lotuta badago: lortutako kredituen balioaren %50, onartutako gehienezkoa lortu arte.
- Loturarik ez badu: ez du punturik jasoko

Kreditatu gabeko etengabeko prestakuntza aintzat hartuko da soilik baldin eta Lanbide Sanitarioak Antolatzeke Legea (33/2003 Legea) indarrean sartu aurretik eman bazen. Kasu horretan 0,1 kreditu/orduko izango ditu eta azalduko gainerako antzintasunaren, egokitasunaren eta urteko gehienezkoen irizpideak ere kontuan hartuko dira.

Etengabeko prestakuntzarekin lotutako beste merituz batzuk:

Arlo honetan gauzatutako jarduera profesionalak aitortu eta egonkortzeko helburuarekin, pisu adierazgarri batekin jaso beharko da baremoetan, irakaskuntza-jarduera profesionala barne hartzen duen atalean edo ataletan, auditorea, ebaluatzailea, tutorea, aholkularia, zuzendaria edo koordinatzailearen figura, baita egokitzat jotzako beste edozein ere, baldin eta etengabeko prestakuntzarekin lotura argia badu.

Kreditatzeko eta Kreditatze Aurreratuko Diplomak



Kreditatzeko eta Kreditatze Aurreratuko Diplomak

44/2003 Legeak, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoak, 36. artikuluan aipatzen ditu Kreditatzeko Diplomak eta Kreditatze Aurreratuko Diplomak, langile batek lanbide edo espezialitate jakin bateko funtzio-arlo espezifiko batean lortu duen prestakuntza-maila egiaztatzeke tresna gisa, dagokion funtzio-arloan kreditaturiko etengabeko prestakuntzako zer jarduera gauzatu dituen aintzat hartuta.

Diploma horiek osasun-administrazio publikoek ematen dituzte eta erregistro publikoko egiaztagiria dira, izendapen-erreserbakoak, eta Estatu osoan balioa dutenak.

Kreditatze Aurreratuko Diploma lortzeko egin beharreko gaitasunak eskuratzeko prozesua zabalagoa eta espezifikoagoa da **Kreditatzeko Diploma** lortzeko egin beharrekoa baino.

Bata zein bestea Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Batzordeak proposatutako **eskakizun, prozedura eta irizpideen** arabera eman beharko dira. Hain zuzen ere, horiek lantzen

dihardu orain Batzordeak.

Oro har, profesional sanitarioen etengabeko prestakuntza aitortzeko figura berriak dira, eta gaitasun batzuetako premien eremu jakin batzuekiko konpromisoa adierazten duten garapen profesionala aitortzean oinarritzen dira.

Figura horiek **kreditaturiko prestakuntza-ibilbideen** bidez konfiguratu eta, horrela, ikaskuntza hobeto antolatzen lagunduko dute, lanpostuari lotutako ibilbideak indartzen dituzten programak osatuz.

Etengabeko Prestakuntza Batzordearen akordioak (indarrean 2013ko urtarrilaren 1etik)

Saio klinikoaren kreditatze-prozedura

Kreditatzea eskatzen duten saio kliniko guztiei 0,2 kreditu emango zaizkie orduko (kopuru hori kalitate-faktore estandar eta lineal bat aplikatzearen emaitza da)

Erakunde hornitzaileek kreditu-kopuru hori lortuko dute, oro har, beren zentroan (ospitale orokorrak, ospitale-zerbitzuak, osasun-zentroak edo sailak direla ere) antolatzen dituzten saioak (klinikoak, bibliografikoak, kasu-multzoak, etab) kreditatzea eskatzen dutenean, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- iraupena: **1-2 ordu/saio**
- **saio bakoitzeko bertaratzeen** kontrola (%100 eskatu beharko da).
- **gogobetetasun-inkesta** (saio bakoitzeko edo programa osoari dagokionez, partaide-kopuruaren arabera)

Horretarako, saioen ziklo osorako kreditatze-eskaria aurkeztu beharko dute, egutegiarekin eta saio bakoitzeko arduraduna zehazten duen programarekin batera.

Hiruhilekoka, seiuhilekoka edo urteka multzokatuta aurkeztu ahalko dira, erakunde hornitzailearen nahierara. Programaren %80an parte-hartzea eskatu ahalko da.

Saio bakoitza amaitzean, **akta** bat idatzi beharko da, datu hauek jasotzeko:

- saioaren izenburua
- saioaren data eta ordua
- hizlariaren izena
- helburu espezifiko bat, gutxienez ere
- justifikazioa eta egokitasuna
- saioaren laburpena (memoria txiki bat)
- partaideen zerrenda eta sarrera/irteerako erregistroak (sinadura-orriaren edo antzekoaren kopia)

- gogobetetze-inkestaren emaitzak

Kontseiluak kreditatze-ziurtagiri bakar bat egingo du saioen ziklo osorako, hura bukatutakoan, saio bakoitzaren izenburua eta horrek lortutako kredituak (0,2 kreditu/saio) zehaztuz. Ziurtagiriak ez ditu guztizko kredituak jasoko.

Parte hartu duten pertsoneri ere ziurtagiri bakar bat emango zaie saioen multzorako; agiri horretan lortutako kredituen guztizko batura (kredituak/saio * parte hartu duen saioen kopurua) adieraziko du, baita parte hartu duten saioen zerrenda zehatza ere.

Nolanahi ere, 2 ikastordu edo gehiagotara joandako partaideek bakarrik izango dute kredituak jasotzeko eskubidea.



Saio klinikoak

Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren aplikazioaren kreditatze-eskaera nola egin:

- Erakunde hornitzaileak **eskaera berria** abiarazi, **izenburua** jarri (... SAIOAK) eta partaidetza-mota (**presentziatzkoa**) adierazi beharko du lehenik. Ondoren, **Kongresua** aukeratu beharko du jardueraren klik egitean agertzen den goitik beherako menuan (beharrezko urratsa da, aplikazioa "engainatu" ahal izateko).
- **Hasiera-data** eremuan programaren lehen saioaren eguna jarri behar da, eta **Amaiera-data**

eremuan, berriz, azken saioarena.

- Onetsi jarraian agertzen diren testuak, **bertaratzearen kontrolari, eskatutako gutxienerako parte-hartzeari** eta eskaria beste kreditatze-batzorde batzuen aurrean ez aurkezteari buruzkoak, hain zuzen ere.
- Pantailaren beheko eta eskuineko aldean dagoen gezia (>>>) sakatu, hurrengo orrira joateko.
- Aplikazioaren orria berbera da, baina eremu berri bat agertuko da: **Jardueraren kointzidentzia**. Eremu horretan **aldiberekoa** aukera jarri behar da.
- Bete hurrengo pantailak saioei buruzko informazio orokorra

adieraziz, azken orrira iritsi arte.

- **Modalitateak** izeneko azken orrian **Erregistro berria** aukeratu.
- **Saio kliniko/teknikoa** aukeratu **Modalitateak** sakatzean irekitzen den goitik beherako menuan, eta jarraitu eremuak bete eta gordetzen.
- **Hizlariak** eremuan, **Erregistro berria** sakatu eta erantsi hizlari bakoitzaren datuak.
- **Saioak** atalean, **Erregistro berria** sakatu eta jarri saio bakoitzaren izenburua eta data.
- Informazio guztia bete ondoren, **Bidali** botoian klik egin.



Etengabeko Prestakuntza Batzordearen akordioak (indarrean 2013ko urtarrilaren 1etik)

Bilera zientifikoan kreditatze-prozedura: jardunaldiak eta kongresuak

Kreditatzea eskatzen duten **jardunaldi eta kongresu guztiek kreditu-kopuru finko bat** jasoko dute **jarduera bakoitzeko**, horien modalitatearen eta iraupenaren arabera, kalitate-faktore estandar eta lineal bat aplikatuz lortzen dena.

▪ **Osoko bilerak/konferentziak, mahai-inguruak, sinposioak, etab.**

≥ ordu 1 < 1,5 ordu → 0,1 kreditu
 ≥ 1,5 ordu < 2,5 ordu → 0,2 kreditu
 ≥ 2,5 ordu < 3,5 ordu → 0,3 kreditu

▪ **Tailerrak eta ikastaroak**

≥ ordu 1 < 1,5 ordu → 0,2 kreditu
 ≥ 1,5 ordu < 2,5 ordu → 0,3 kreditu
 ≥ 2,5 ordu < 3,5 ordu → 0,4 kreditu

Kreditatze globala (programa osorako) eska daiteke baldin eta aldibereko jarduerarik ez badago eta guztietan parte har badaiteke. Aldibereko jarduerak badaude eta batean edo bestean parte hartu nahi den erabaki behar bada, **modalitatekako kreditatzea** eskatu behar da.

Dena dela, eskaera bakarra aurkeztu behar da.

Azken kredituak ezarritako faktorea aplikatetik ateratakoak izango dira, kreditatze globala edo modalitatekako eskatzen den gorabehera:

- Kreditatze globala eskatuz gero, kredituak jardunaldi edo kongresuko ziurtagirian azalduko dira, batuta, jarduera zehatz bati lotu gabe.
- Modalitatekako kreditatzea eskatuz gero, berriz, kredituak jardunaldi edo kongresuko ziurtagirian azalduko dira, baina batura egin gabe, jarduera bakoitzari lotuta.

Bilera zientifikoek kreditatze hau eskuratu ahalko da baldintza hauek betez gero:

- Batzorde zientifikoa edota antolatzailea izatea.
- Merkataritza-independenziaren araudia betetzea.
- Iritzi- edo gogobetetasun-inkesta egitea (kongresu/jardunaldi osoarena izan daiteke).
- Tailerrak eta ikastaroak: 40 parte-hartzaile gidari bakoitzeko, eta gogobetetasun-inkesta.
- Jardueren gutxieneko iraupena: ordu 1.

Ez dira kreditagarritzat jotzen antolatzaileek bere gain hartzen ez duten programa zientifikoaz kanpoko aurkezpenak (ahozko komunikazio askeak, posterrak, industriak sustatutako sinposio sateliteak, etab.).

Partaideentzako egiaztagiria:

Kreditatze **globala** eskatzen bada eta jardunaldiak edo kongresuak guztira 4 ordu baino gutxiago irauten badu, %100eko partaidetza eskatzen da kredituak jaso ahal izateko. Guztizko iraupena 4 orduetik gorakoa bada, berriz, %80koa.

Modalitatekako kreditatzea eskatzen bada, %100eko partaidetza izatea eskatzen da kredituak jaso ahal izateko. Nolanahi ere, 2 ikastordu edo gehiagotara joandako partaideek bakarrik izango dute kredituak jasotzeko eskubidea.

Kreditatze **globalaren** kasuan, kredituen guztizko kopurua agertuko dira egiaztagirian, jardunaldian edo kongresuan parte hartu izateagatik, jarduera zehatz bati lotu gabe.

Modalitatekako kreditatzea aukeratuz gero, erakunde hornitzaileak egiaztagiri bat egin beharko du parte-hartzaile bakoitzarentzat, kongresua edo jardunaldia osatzen duten ekintzetan egon dela adierazten duena, jarduera bakoitza eta dagozkion kredituak zehaztuta. Etengabeko prestakuntzako jarduera honetan soilik batu daitezke kredituak.

Bilera zientifikoak



Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren aplikazioan kreditatze-eskaera nola egin:

Erakunde hornitzaileak saio klinikoentzat azaldutako bera egin behar du, **Jardueren aldiberekotasuna** eremua agertzen den arte. Eremu horretan,

Sekuentziala (kreditatze globala nahi bada) edo **Aldiberekoa** (modalitatekako kreditatzea nahi bada).

Bigarren kasuan, **Modalitateak** eremuan **Erregistro berria** aukera sakatu eta dagozkion modalitate aukeratu behar da goitik beherako menuan agertzen direnen artean:

mahai-ingurua, hitzaldia, sinposioa, tailerra, etab.

Modalitate bakoitzaren barruan, **Erregistro berria** botoian klik eginez erantsi ahalko dira modalitate horri dagozkion jardueraren datuak.

Etengabeko Prestakuntza Batzordearen akordioak (indarrean 2013ko urtarrilaren 1etik)

Jarduera mistoak



Jarduera mistoak kreditatzea

Hein batean presentziazkoak izanik presentziazkoa ez den zati bat dutenak dira jarduerak mistoak, baldin eta zati bata zein bestea profil pedagogikokoak badira.

Jarduera bat mistotzat jo eta presentziazkoa ez den aldeari balioa eman ahal izateko, baldintza hauek bete behar ditu:

- tutoreak izatea
- irakaskuntza-materiala edukitzea, ikasketa-gida eta guzti (nahitaezkoa da zereginak eta aurreikusitako denbora zehazten dituen egutegia eranstea)
- ebaluazio-proba egitea, proposatutako helburuak lortu diren edo ez egiaztatzeko.

Jarduera-motak:

1. Zati presentziazkoa + I. motako zati ez-presentziazkoa (edukien hornidura/kudeaketa).
2. Zati presentziazkoa + II. motako zati ez-presentziazkoa (ikasketa-plataforma).

Ebaluazio-prozedura:

Osagai kualitatiboa (OKL) kalkulatzeko zati presentziazkoa eta ez-presentziazkoa bereiz balioetsiko dira, eta emaitza zati bakoitzak guztizko ordu-kopuruarekin alderatuta duen iraupenaren arabera haztatuko da.

Azken OKL = zati presentziazkoaren OKL * zati presentziazkoaren % jarduerak osoaren iraupenarekiko + zati ez presentziazkoaren OKL * zati ez-presentziazkoaren % jarduerak osoaren iraupenarekiko (Adibidez: OKL = (1,8*0,60) + (1,2*0,40). Jarduera honetan zati presentziazkoaren OKL 1,8 da, eta zati presentziazkoaren iraupena jarduerak osoaren %60koa da).

Osagai kuantitatiboa kalkulatzeko (**OKT**) ordu presentziazkoak eta ordu ez presentziazkoak batuko dira, jarduerak motaren arabera kalkulatu:

I. motakoa (edukien hornidura/kudeaketa): ordu ez presentziazkoak materiala ikasteko behar den aurreikusitako orduen arabera (5 ordu astean, gehienez ere) kalkulatu dira.

II. motakoa (ikasketa-plataforma): ordu ez-presentziazkoak jarduerak bukatu duten pertsonen parte hartzen jardun duten batez besteko denboran oinarrituta kalkulatu dira.

Plataformaz kanpoko edukiak ere badaudenean (I. mota) eduki horiek ikasten iragandako orduak gehitu behar zaizkio plataformako zuzeneko lanari, goian aipatutako muga (5 ordu astean) aintzat hartuta, beti ere.

Eskatutako lan praktikoetan emandako denbora kontuan hartuko da soilik baldin eta horien memoria aurkezten bada, egiazki denbora hori erabili dela frogatu ahal izateko.